Bilboko Gotzainaren 1989ko uztailaren 17ko Dekretuaren ondorioz, Bilbo Hiriko Penitentzial Kofradien Anaidia sortu zen Bilboko elizbarrutian, hau da, nortasun juridikodun fededunen elkartea. Anaidia horretako kide izateko eskubidea dute egoitza Bilbon duten kofradia guztiek, eta honako hauek dira, estatutuen arabera, haren xedeak: *"...kofradia horien jarduera tradizionalak garaien zantzuarekiko fidel manten daitezela sustatzea; Aste Santuko prozesioen kultuari loturiko jarduera kultural, artistiko, zientifiko eta teknikoak bideratu eta koordinatzea; elkarteko penitentzia-kofradien arteko harremanak sustatzea; penitentzia-kofradien eta elizako agintarien zein agintari zibilen arteko harremanak erraztea; elkarteko erakundeei euren jardunari buruzko aholkularitza espezializatua ematea; hiribilduko penitentzia-kofradiek aurkezten dizkioten ekimen guztiak bideratzea eta laguntzea; penitentzia-kofradien jarduerak koordinatzea eta horien xede guztiak betetzeko beharrezkoak diren funtsak lortu eta administratzea"*.

Mediante Decreto del Obispado de Bilbao de 17 de julio de 1989 se erige, en la Iglesia diocesana de Bilbao, la Hermandad de Cofradías Penitenciales de la Villa de Bilbao como asociación de fieles con personalidad jurídica y a la que tendrán acceso aquellas cofradías domiciliadas en Bilbao, teniendo como fines, tal y como recogen sus estatutos, *"... fomentar que las actividades tradicionales de dichas cofradías den fidelidad a los signos de los tiempos; orientar y coordinar actividades de carácter cultural, artístico, científico y técnico relacionadas con el culto procesional de la Semana Santa; promover las relaciones entre las cofradías penitenciales asociadas; facilitar las relaciones entre las cofradías penitenciales con las autoridades eclesiásticas y civiles; facilitar a las entidades asociadas asesoramiento especializado en relación con sus actividades; encauzar y apoyar cuantas iniciativas se le presenten por las cofradías penitenciales de la villa; coordinar las actuaciones de las cofradías penitenciales y obtener y administrar los fondos necesarios para el cumplimientos de todos sus fines"*.

Bilboko Aste Santuko Pausuen Museoaren egoitza eta Bilbo Hiriko Penitentzial Kofradien Anaidiaren egoitza biltzen dituen eraikina azpimarragarria da, ez behar bada estetika aldetik, baina bai bere historiagatik. Bilboko alde zaharraren erdi-erdian dago, estilo neoklasikoa du eta XVIII. mendekoa da; interes kulturaleko eraikintzat hartzen da. Ardo-alondegia izateko eraiki zuten hasiera batean, eta horrexegatik du sarrera-ate handia, handik igarotzen baitziren gurdiak. Ondoren, denbora-tarte batez ikaztegia izan zen, eta gerora astoak alokatzen ziren tokia ere izan zen. Hortik datorkio "la Burrería" goitizen maitekorra.

Eraikina XX. mendean abandonatuta egon zen denbora luzez. 90eko hamarkadan, Anaidiaren ekimenez, lehenengoz pasoen biltegi bihurtzea planteatu zen -1998az geroztik-, eta geroago, museo-gune gisa eduki pedagogikoagoa ematea planteatu zen. Azkenik, 2001eko martxoaren 7an museo hau inauguratu zen. Hala, egun hartatik aurrera, Bilboko bederatzi kofradiek euren historiaren zati garrantzitsu bat biltzeko gunea daukate. Museoa sortzeko lanetan Kofradien Anaidiak, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartu zuten parte.

Bere erakargarritasunik handiena, Kristoren Pasioaren Gurutze-bidea osatzen duten Pasoak dira. Lehenengo solairuan daude, foru titulartasuneko altzari batzuen artean. Gainera, beheko solairuko zati batean tenpluetan kulturako erakusgai dauden zenbait irudiren tailuak eta andak daude. Halaber, kofradia bakoitzak bere gunea du beheko solairuan, nork bere historia, abitua, intsigniak eta estandartea zein Kofradia bakoitzaren berezigarriak diren eta nortasun propioa ematen dieten objektu ezberdinak erakutsi ahal izateko. Horrela, Aste Santu gutxi batzuek soilik daukaten kalitate handiko eta balio kalkulaezineko ondare-multzoa taxutzen da.

El edificio que alberga tanto la sede del Museo de Pasos de Semana Santa de Bilbao como la sede de la Hermandad de Cofradías Penitenciales de la Villa de Bilbao merece ser destacado, quizás no tanto por su estética, sino por su historia. Situado en pleno casco antiguo de la villa de Bilbao, es de estilo neoclásico y data del siglo XVIII, y está considerado edificio de interés cultural. Se construyó con el objetivo de ser una alhóndiga de vinos, razón por la que tiene un gran portón, por donde pasaban los carros. Posteriormente y durante un tiempo fue carbonera, pasando después a ser un edificio donde se alquilaban burros, de ahí el cariñoso apodo al edificio, "La Burrería".

Durante una parte importante del siglo XX el edificio permaneció abandonado, hasta que en los años 90, y a iniciativa de la Hermandad, se plantea reconvertirlo primero en almacén de pasos -desde 1998-, y después darle un contenido más pedagógico como espacio museístico. Finalmente, el 7 de marzo de 2001 se inauguró este museo, de modo que desde esa fecha, las nueve cofradías de Bilbao cuentan con un recinto donde recogen parte importante de su historia. En su creación participaron la Hermandad de Cofradías, el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Bizkaia.

Su principal atractivo son los Pasos que componen el Vía Crucis de la Pasión de Cristo y descansan en la primera planta, acogiendo entre ellos bienes muebles de titularidad foral. Además, en una parte de la planta baja hay diversas tallas y andas de imágenes que permanecen expuestas al culto en sus respectivos templos. Asimismo, cada cofradía dispone de un espacio en la planta baja para dar a conocer su historia, su hábito, sus insignias y estandartes, y diversos objetos que distinguen a cada Cofradía y le confieren un espíritu y personalidad propios. Todo ello configura un conjunto patrimonial de extraordinaria calidad e incalculable valor que pocas Semanas Santas tiene.

Herri honen izaeraren baitako ondare-elementuak kontserbatu eta ezagutarazteko borondate argi eta iraunkorraren adibidea izanik, Bizkaiko eremu museografikoan eta kultur ondarean orokorrean berezitasun ukaezina duen ondarea iraunarazteko bide positibo eta eraginkorra da.

Azaldu dena kontuan hartuta, "ASTE SANTUKO PASOEN MUSEOA" benetako erreferentzia da –Euskadin ezaugarri horiek dauzkan museo bakarra da-, imajinen eta imajinagileen kalitateari esker.

Azpimarratu beharra dago foru-laguntza hauek ematea interes publikoaren alde egitea dela, eta ez bakarrik zalantzarik gabe gure identitatearen baloreak ikertzeko, berreskuratzeko eta biltzeko lanetan lagundu behar delako: Foru Aldundi honek, eta bereziki Euskera, Kultura eta Kirol Sailak, ezinbestean bete behar du Bizkaiko ondare historiko eta kulturalaren adierazpide guztiak zaintzeko eta zabaltzeko eta horiek etorkizuneko belaunaldiei ahalik eta hobekien transmititu ahal izateko beharrezkoak diren jarduera eta programa guztiak garatzeko eta laguntzeko duen eginbehar instituzionala. Museoaren jatorrian Foru Erakundeak parte hartu izanak erakutsi egiten du multzo horren babesari hasiera-hasieratik eman nahi izan dion garrantzia.

Museoa hain interesgarria eta apartekoa –eta ondorioz, Ohiz kanpokoa– izanik, ezin da deialdi publiko arrunta erabili, ondare hori behar bezala babestearen helburua lortuko bada.

Azkenik, azaldu behar da "ASTE SANTUKO PASOEN MUSEOA" Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Arau bidez lehentasunezkotzat jo diren jardueren zerrendan ageri dela. Hala, Lurraldearen kultur ondarearen kontserbazio eta zabalkundearen ikuspuntutik bereziki garrantzitsua den ekipamendu baten finantzazioan sektore pribatuaren partaidetza balioetsi nahi da.

Ejemplo de una inequívoca y continuada voluntad de conservación y difusión de elementos patrimoniales considerados consustanciales a la naturaleza de este País, constituye un medio positivo y eficaz de mantener un legado de singularidad innegable en el ámbito museográfico de Bizkaia y del patrimonio cultural en general.

El "MUSEO DE PASOS DE SEMANA SANTA" es, a la vista de lo expuesto, un referente -único museo de estas características en el País Vasco- gracias a la calidad de las imágenes y de sus imagineros.

Señalar el interés público subyacente en la concesión de esta ayuda foral, interés que resulta evidente atendiendo no sólo a la necesidad indiscutible de contribuir a las labores de investigación, recuperación y recopilación de nuestros valores identitarios, sino también de cumplir con el compromiso institucional ineludible de esta Diputación Foral y concretamente de su Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, de conservar y difundir el legado histórico-cultural de Bizkaia en todas sus manifestaciones y desarrollar y apoyar cuantas actividades y programas sean precisos para su más correcta transmisión a las generaciones venideras. La presencia de la Institución Foral en sus orígenes no hace sino poner de relieve la relevancia que la misma ha querido conferir desde un principio a la protección de tal conjunto.

Junto a dicho interés, resaltar el carácter único y por ende, excepcional del Museo, lo que conlleva la imposibilidad de recurrir a una convocatoria pública para alcanzar el objetivo perseguido de proteger eficazmente tal legado.

Finalmente, hacer constar que el "MUSEO DE PASOS DE SEMANA SANTA" figura en el listado de actividades prioritarias declarado por Norma Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, buscando con ello de poner en valor la participación del sector privado en la financiación de un equipamiento que se considera de especial trascendencia desde el punto de vista de la conservación y difusión del acervo cultural del Territorio.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / ***DEPARTAMENTO***	**ATALA** / ***SECCION***	**EGITARAUA** / ***PROGRAMA***	**AZPIKON.** ***SUBCONCEP.***
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**04.** Ondare Historikoa *Patrimonio Histórico*	**333.103** Zabalkundea eta Museoak *Divulgación y Museos.*	**451.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2007/ 0185**: Santa Ana Komentu Domingotarra. Berriotxoa Museoa. *Dominicas Convento de Santa Ana. Museo Berriotxoa*	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**5.000**

TXOSTENA:

Ondare kulturala Euskal Herriaren nortasun-adierazpide nagusia da, eta baita gure herriak kultura unibertsalari historikoki egin dion ekarpenaren lekuko garrantzitsua ere. Ondare hori babestea, defendatzea eta aberastea izan behar da botere publikoen jardunaren printzipioetako bat, ondare horren araubide juridikoa eta jabea edozein direla ere.

Hori bermatze aldera, EAEko Autonomia Estatutuak Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusibo gisa onartzen ditu kultura, ondare historikoa eta agiritegi, liburutegi zein museoak, Estatuarenak direnak izan ezik, noski. Lurralde Historikoei buruzko legeak lurralde horietako foru-erakundeei esleitzen dizkie kontserbazio-, zaharberritze- eta hobekuntza-arloko legegintza-garapenerako eta burutzapenerako eskumenak eta, hala dagokionean, baita ondare historiko eta artistikoa, monumentala eta arkeologikoa induskatzeko eskumena ere. Gainera, beren titularitatekoak diren agiritegi, liburutegi eta museoen gaineko eskumen esklusiboa ere ematen die.

INFORME:

El patrimonio cultural es la principal expresión de la identidad del pueblo Vasco y el más importante testigo de la contribución histórica de este pueblo a la cultura universal. La protección, defensa y enriquecimiento de dicho patrimonio, cualquiera que sea su régimen jurídico y su titularidad, debe ser uno de los principios ordenadores de la actuación de los poderes públicos.

En este sentido, el Estatuto de Autonomía del País Vasco reconoce como competencias exclusivas de la Comunidad Autónoma la cultura, el patrimonio histórico y los archivos, bibliotecas y museos, salvo los de titularidad estatal. La ley de Territorios Históricos, por su parte, atribuye a las instituciones forales de dichos territorios competencia de desarrollo legislativo y ejecución en materia de conservación, restauración, mejora y, en su caso, excavación del patrimonio histórico-artístico, monumental y arqueológico, y competencia exclusiva sobre archivos, bibliotecas y museos de su titularidad.

Gure Lurralde Historikoari dagokionean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskera, Kultura eta Kirol Sailak honako eskumenak ditu, besteak beste: ondare historiko eta kulturala bere osotasunean ezagutzea, kontserbatzea eta zabaltzea eta horiek datozen belaunaldiei ahalik eta hobekien transmititu ahal izateko beharrezkoak diren jarduera eta programa guztiak garatzea, museoen, agiritegien, liburutegien eta Lurralderako interesgarria izan daitekeen beste edozein kultura-erakunderen ekipamendua sortzea eta mantentzea, eta Bizkaiko kultura sustatu eta zabaltzea, horrela bertoko kultura ezagutzea eta garatzea ahalbidetzeko eta Bizkaiko gizartea gainerakoetara zabaldu ahal izateko. Horiek hezurmamitu ahal izateko, Sailak Bizkaiaren eta bertako Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko balio duten mota ezberdinetako adierazpide artistikoak zabaltzen eta babesten laguntzen du, bereziki euskal kultura nabarmentzea helburu duten adierazpideen kasuan.

En el ámbito de nuestro Territorio Histórico, entre las competencias del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran el conocer, conservar y difundir el legado histórico-cultural en todas sus manifestaciones y desarrollar cuantas actividades y programas sean precisos para su más correcta transmisión a las generaciones venideras, crear y mantener equipamientos museísticos, archivísticos y bibliotecarios, así como cualquier otro tipo de organismo cultural de interés para el Territorio, y promover y difundir la cultura en Bizkaia, posibilitando con ello el conocimiento y desarrollo de la cultura propia y abriendo ampliamente la sociedad vizcaína a todas las demás. A tal fin, este Departamento organiza y colabora en la difusión y sostenimiento de manifestaciones artísticas de diversa índole que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral, especialmente aquellas destinadas a poner en valor lo que la cultura vasca representa.

“VALENTÍN BERRIO-OTXOA MUSEOA”, domingotar talde batek santuari loturiko objektuak bildu eta horien bilduma egiteko lehen ideiatik sortu zen: ordura arte Santuaren gorpuzkiak San Roke udal-hilerrian utzita zeuden, eta domingotar taldeak bikarioetxeko etxabean zegoen “Gramatika-gela” zeritzonera eramatea lortu zuen. Santa Ana Komentuko mojek gela hori utzi zuten etorkizunean museoa eraiki ahal izateko. Harrezkero bertan gorde dira senitartekoek, lagunek eta Monasterioak berak zituzten Santuaren inguruko objektu guztiak. Urteak igaro ziren, eta santua kanonizatzeko eskatu ondoren, 1947an Bizkaiko Foru Aldundiak zenbait kudeaketa hasi zituen Elorriori bere herritarrik entzutetsuenarentzako Museoa emateko. Zailtasunak gainditu ostean, azkenean lortu zen Museoa inauguratzea. Horretarako aukeratutako data 1950eko uztailaren 4a izan zen, santuaren eguna, hain zuzen, eta Museoa bere etxean jarri zen, Aldundiak xede horretarako erosi baitzuen.

El “MUSEO VALENTÍN BERRIO-OTXOA MUSEOA” surge de una primera idea de recoger y coleccionar objetos relacionados con el Santo, que puso en práctica un grupo de dominicos que lograron trasladar los restos del Santo, hasta entonces abandonados en el cementerio municipal de San Roque, a la denominada “Aula de Gramática”, en los bajos de la Casa Vicarial, aula que cedieron las monjas del Convento de Santa Ana con miras a un futuro museo. Desde entonces han ido depositándose en dicho lugar todos los objetos relacionados con el Santo en posesión de familiares, amistades, y del mismo Monasterio. Pasados los años, y promovida la causa de su canonización, la Diputación Foral de Bizkaia inició en 1947 una serie de gestiones para dotar a Elorrio de un Museo público dedicado al más preclaro de sus hijos. Vencidas algunas dificultades, estas gestiones llegaron a buen puerto y el 4 de julio, de 1950, festividad del Santo, se inauguró el Museo en la casa del Santo, adquirida por la Diputación para tal fin.

Museoak lan garrantzitsua egiten du bertute kristauak zabaltzeko orduan, baina baita Loiolako San Inaziorekin batera Bizkaiko zaindaria den Elorrioko Valentin Berrio-Otxoa santuak euskal kulturarekin eta hizkuntzarekin izan zuen loturaren berri emateko orduan ere, duintasun xumea ematen baitie Santuak Elorriorekin eta Lurralde Historikoarekin berarekin izan zuen loturari eta bere fedearen ondorioz martiri hil zenean nazioartean izan zuen ospeari.

El museo realiza una importante y única labor de difusión de las virtudes cristianas y de la vinculación con la cultura y lengua vascas del Santo elorriano Valentín Berrio-Otxoa, patrono, junto a San Ignacio de Loyola, de Bizkaia, ofreciendo con sencilla dignidad lo que fue su vinculación con Elorrio y con el Territorio Histórico, y su posterior proyección universal al morir mártir por su fe.

Azpimarratu beharra dago foru-laguntza hauek ematea interes publikoaren alde egitea dela, eta ez bakarrik zalantzarik gabe gure identitatearen baloreak ikertzeko, berreskuratzeko eta biltzeko lanetan lagundu behar delako: Foru Aldundi honek, eta bereziki Euskera, Kultura eta Kirol Sailak (erakundeari jatorritik lotuta egonik), ezinbestean bete behar du Bizkaiko ondare historiko eta kulturalaren adierazpide guztiak zaintzeko eta zabaltzeko eta horiek etorkizuneko belaunaldiei ahalik eta hobekien transmititu ahal izateko beharrezkoak diren jarduera eta programa guztiak garatzeko eta laguntzeko duen eginbehar instituzionala.

Señalar el interés público subyacente en la concesión de esta ayuda foral, interés que resulta evidente atendiendo no sólo a la necesidad indiscutible de contribuir a las labores de investigación, recuperación y recopilación de nuestros valores identitarios, sino también de cumplir con el compromiso institucional ineludible de esta Diputación Foral y concretamente de su Departamento de Euskera, Cultura y Deporte (vinculados a la entidad ya en sus orígenes), de conservar y difundir el legado histórico-cultural de Bizkaia en todas sus manifestaciones y desarrollar y apoyar cuantas actividades y programas sean precisos para su más correcta transmisión a las generaciones venideras.

Museoa hain interesgarria eta apartekoa izanik, Lurraldean Bizkaiko patroiaren ondarea kontserbatzeko lana egiten bakarra den aldetik, ezin da deialdi publiko arrunta erabili, oinordetza hori behar bezala babestearen helburua lortuko bada.

Junto a dicho interés, resaltar el carácter excepcional de este Museo, único en el Territorio en la labor de preservar el legado del único Patrono bizcaíno del mismo, lo que conlleva la imposibilidad de recurrir a una convocatoria pública para alcanzar el objetivo perseguido de proteger eficazmente tal herencia.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**04.** Ondare Historikoa *Patrimonio Histórico*	**333.103** Zabalkundea eta Museoak *Divulgación y Museos.*	**451.00**

PROIEKTUA *PROYECTO*	**2018/ 0021**: Hontza Museoa Fundazioa-Natur zientzien Museoa *Hontza Museoa Fundazioa.- Museo Ciencias Naturales*	ZENBATEKOA *IMPORTE*	**10.000**

TXOSTENA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2. artikuluan ezartzen du zuzenean eman ahal izango direla hurrengo diru-laguntza hauek: *"a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak*".

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurreikusitako diru-laguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak kultur arloko askotariko kultura agerraldiak antolatzen eta sustatzen ditu, Bizkaiaren eta bere Foru Aldundiaren izen ona modu berezian hedatzeko balio dutelakoan.

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: "*a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia"*.

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia organiza y promueve diversas manifestaciones de carácter cultural que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

Aldundiko sail honek uste du horretarako ezinbestekoa dela Bizkaiaren onurarako diren kultur ekimen guztiak bultzatzea, eta horren arabera antolatzen dugu Aldundiaren laguntza ekonomikoa.

A tal fin, este Departamento Foral considera necesario impulsar todas aquellas iniciativas culturales de interés general para Bizkaia. En ese marco es donde situamos el apoyo económico de esta Institución Foral.

Hontza Museoa Fundazioa irabazteko asmorik gabeko entitatea da. 30 urte baino gehiago natur zientzien arloan lan egin ondoren sortu da. Aldi horretan bildumen bilduma bikaina eratu da; guztira 38.000 ale baino gehiago dauzka informatizatuta eta alta emanda, mundu osokoko biodertsitatearen adierazgarri: landareak, fungi, geologia (haitzak, mineralak, fosilak, eta abar) eta animaliak (ornogabeak eta ornodunak).

Hontza Museoa Fundazioa, es una entidad sin ánimo de lucro, que surge tras más de 30 años trabajo dedicados al mundo de las Ciencias Naturales, que han dado como resultado una importantísima colección de colecciones, de más de 38.000 ejemplares, informatizados y dados de alta hasta estas fechas, de todo el mundo y de los distintos grupos que compone la Biodiversidad de nuestro planeta: Botánica, Fungi, Geología, (rocas, minerales, fósiles, etc.) y Zoología, (Invertebrados y Vertebrados).

Museoa 1987ko ekainean sortu zen eta hiru urte erdi egon zen zabalik. 1991ko urtarrilean itxi egin behar izan zen; hala ere, lanean jarraitu du, ateak ez ireki arren, gaur egunera arte.

El Museo se creó en junio de 1987, permaneciendo abierto tres años y medio, pero que, por circunstancias ajenas a su voluntad, tuvo que cerrarse en enero de 1991; aunque ha permanecido activo, de puertas adentro, hasta la actualidad.

2014ko azaroan beste egoitza batean ireki zen berriro, eta ibilbide berriko hirugarren urtean 10.000 bisita baino gehiago eduki zituen. Kopuru horrek argi erakusten du nolako interesa sortzen duen Hontza Museoak kulturaren arloan eta hezkuntzaren arloan egiten duen lanak.

Abrió sus puertas, en una nueva sede, en noviembre de 2014 y en este tercer año, logró superar las casi 10.000 visitas. Una cifra que muestra el gran interés que ha suscitado la labor cultural y educativa que tiene el Hontza Museoa.

Hontza Museoa Fundazioaren helburu nagusia da museoan hartzea natura aztertzen duten adituek eta naturazaleek ekartzen dituzten denetariko espezimenak, bai eta jasotzen diren ekarpenak ere, aztertzeko, zaintzeko eta herritarrei aurkezteko, asko kulturalarekin zein hezkuntzarako, herritarrek maite izan ditzaten eta zaindu ditzaten.

El objetivo principal de la Fundación Hontza Museoa, a través del museo, es la de dar cobijo a todo tipo de especímenes, aportados por especialistas y amantes de la naturaleza, así como todo tipo de donaciones, para estudiarlos, conservarlos y darlos a conocer, tanto cultural y pedagógicamente, para de esta forma puedan amarlos, y protegerlos.

Gaur egun Hontza Museoa Fundazioa Euskadiko Museoen Sarean dago, eta Durangaldeko turismoaren mahaian dago Durangoko Merinaldearen Mankomunitatea Urkiola Landa Garapeneko Elkartearekin batera.

En la actualidad, la Fundación Hontza Museoa se encuentra en la red de Museos de Euskadi y en la mesa de participación de turismo de la comarca del Duranguesado con la Mancomunidad de la Merindad de Durango y la Agencia de Desarrollo Rural Urkiola.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

Hontza Museoa berriz ere ireki zenetik Mañariako egoitza berrian 9.300 bisitari baino gehiago izan dira bertako erakusketa-aretoetan. Kopuru horrek ondo islatzen du eraskusketako aleen berezitasunak eta edertasunak pizten duten interesa. Izan ere, era guztietakoak dira, denetariko tamaina, tankera eta koloretakoak.

Museo dinamikoa da, ikasturte bakoitzean erakusketa eraberritzen da eta. Gaur egun sei erakusketa-areto daude bi solairutan. Beste areto bat irekitzeko asmoa dago; horri esker ale gehiago egongo dira ikusgarri eta erakusketaren irismen kulturala eta didaktikoa handituko dira.

Horregatik guztiagatik, argi dago diru-laguntza izendun hau ezin dela eman ohiko diru-laguntza deialdi publiko baten bidez, proiektua oso berezia baita: ondare berezi hau mantentzea.

Horregatik, Aldundiaren diru-laguntza hau izenduna izatea eskatzen da.

Desde que el Hontza reabrió sus puertas en la nueva sede de Mañaria, ha superado la cifra de 9.300 personas que han visitado las salas de exposición. Una cifra que avala el gran interés que despiertan los distintos ejemplares expuestos, su singularidad y belleza…Ejemplares todos ellos de distintos tamaños, formas, colores y dibujos.

Se trata de un Museo dinámico, ya que cada curso escolar se cambia la exposición. Actualmente el Museo cuenta con 6 salas de exposición repartidas en 2 plantas. En un futuro se espera inaugurar una nueva sala, que hará posible el aumento de ejemplares expuestos y con ello una mayor y mejor muestra cultural y didáctica.

Por todo lo expuesto, en el caso de esta subvención foral nominativa es claro que la concesión de la misma no puede ser encuadrada en ninguna convocatoria pública ordinaria de subvenciones, dado el carácter excepcional del proyecto, que no es otro que contribuir al mantenimiento de este Patrimonio singular.

Por ello, se solicita la consignación como nominativa de esta subvención foral.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**04.** Ondare Historikoa *Patrimonio Histórico*	**333.103** Zabalkundea eta Museoak *Divulgación y Museos.*	**451.00**

PROIEKTUA *PROYECTO*	**2019/0070**: *Antzasti- Euskaldunon etxea Elkarte Asociación Antzasti – Euskaldunon etxea*	ZENBATEKOA *IMPORTE*	**15.000**

TXOSTENA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2. artikuluan ezartzen du zuzenean eman ahal izango direla hurrengo diru-laguntza hauek: *"a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak"*.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurreikusitako diru-laguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak kultur arloko askotariko kultura agerraldiak antolatzen eta sustatzen ditu, Bizkaiaren eta bere Foru Aldundiaren izen ona modu berezian hedatzeko balio dutelakoan.

Xede horrez, foru sailaren ustez, Bizkairako interes orokorra duten kultur ekimen guztiak bultzatu behar dira.

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: "*a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia"*.

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia organiza y promueve diversas manifestaciones de carácter cultural que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

A tal fin, este Departamento Foral considera necesario impulsar todas aquellas iniciativas culturales de interés general para Bizkaia.

Esparru honetan kokatzen dugu foru erakunde honen laguntza ekonomikoa.

"Antzasti- Euskaldunon Etxea" bi emakumeen ekimen pribatuari esker sortutako proiektua da. Eurak antropologia eta kultur balio ukaezina duen legatu higigarri eta higiezinaren jaraunsleak dira. Nolanahi ere, proiektuaren sustatzaileek beren denbora, lana eta ahalegina oso-osorik eskaini diote Bizkaian museo-jarduera paregabea eta berezia katalogatu, zaharberritu eta diseinatzeari. Aurrekoaren harira, zalantzarik gabe, balioa eman behar zaio eta jarraipena ziurtatu behar da.

Beraz, antropologia-proiektua da eta funtsak kontserbatzeaz gain, horiek museo-helburuekin zabaltzea du helburu. Xede horrez, jendeari irekitako eremua ageri da. Zenbait objektu erakusteaz gain, testuinguruan kokatuak daude. Guztiak garai historiko berdinekoak dira, XIX. mendearen amaierakoak eta XX. mendearen hasierakoak, alegia, bai Bizkaiko landa-ingurunean, bai hiriko ingurunean. Erakusketa-gune honen oinarrizko kontzeptua eta ildo nagusia etxearen, egoitzaren, ingurukoa da. Hala, bisitariak aipatutako garaiko baserria eta Bilboko etxe bat osatzen duten gela guztietan sartzeko aukera izango du.

Etxe eta landa-inguruneetako objektuak erakusteaz gain, "Antzasti-Euskaldunon Etxea" zerbait gehiago da, Arratiako tranbian bidaia sinbolikoa egitearen bitartez, modernotasuna eta usadioa elkartzen diren tokiko historia kontatzen baitu eta garai-aldaketa azaltzen duten mugarriak azpimarratzen baitira: industria-iraultza eta aro teknologiko berria. Historia honek bisitariari historia berrienean zehar bizkaitarren bizimoduari buruzko hausnarketa-gunea eskainiko dio.

En ese marco es donde situamos el apoyo económico de esta Institución Foral.

"Antzasti- Euskaldunon Etxea" se trata de un proyecto fruto de la iniciativa privada de dos mujeres, herederas de un legado mueble e inmueble de innegable valor antropológico y cultural. Para ello, las promotoras de este proyecto han dedicado por completo su tiempo, trabajo y esfuerzo en catalogar, restaurar, diseñar una actividad museística única y singular en Bizkaia que merece sin duda ser puerta en valor asegurando su continuidad.

Se trata, por tanto, de un proyecto de carácter antropológico, cuyo objetivo consiste no sólo en la preservación de los fondos con los que cuenta sino en la divulgación con fines museísticos de los mismos. Para ello dispone de un espacio abierto al público donde se ven expuestos y contextualizados una serie de objetos pertenecientes todos ellos al mismo periodo histórico, finales del siglo XIX y principios del siglo XX, tanto en el entorno rural como en el urbano de Bizkaia. El concepto fundamental e hilo conductor de este espacio expositivo gira en torno a la casa, etxea, el hogar, de forma que el visitante tiene la oportunidad de adentrarse en todas y cada una de las estancias que conformaban una vivienda de casería y otra de Bilbao del periodo citado.

"Antzasti-Euskaldunon Etxea" no solo muestra una serie de objetos de una casa y entornos rurales, es algo más, ya que mediante un viaje simbólico en el tranvía de Arratia, cuenta una historia donde se conectan modernidad y tradición destacando los hitos que marcan los cambios de época: la revolución industrial y la nueva era tecnológica. Esta historia ofrece al visitante un espacio de reflexión sobre el devenir de la forma de vida de los vizcaínos y vizcaínas a lo largo de su historia más reciente.

Era berean, diruz lagundutako proiektuaren hiru ezaugarri nabarmendu behar ditugu, izaera berezia eta bikaina indartzen dutelako: emakumearen zeregina museo etxearen kontakizun historiko guztian, genero-ikuspegia jardueran sartuta; datozen belaunaldientzat ondare ez-materialaren balio igorle altua; eta euskal mitologia ordezkatzen duen kokagunean tokia. Hortaz, azkenekoa elkarte onuradunaren dibulgazio-jardueran sartuta dago.

Azaldutako guztiarengatik, foruaren diru-laguntza izendun honen kasuan, salbuespenezko proiektuaren izaera argia da, hain zuzen ere, gure udalerrietako kultur ondarean herritarrei hurbiltzea.

Horregatik, Aldundiaren diru-laguntza hau izenduna izatea eskatzen da.

Igualmente, hemos de destacar tres características del proyecto subvencionado que refuerzan su carácter especial y extraordinario: el papel que la mujer tiene en todo el relato histórico de la casa museo, integrándose de esta manera la perspectiva de género en la actividad, su alto valor transmisor del matrimonio inmaterial a generaciones venideras y su ubicación en uno de los enclaves más representativos de la mitología vasca, la cual es incluida en la actividad divulgativa de la asociación beneficiaria.

Por todo lo expuesto, en el caso de esta subvención foral nominativa es claro el carácter excepcional del proyecto, que no es otro que acercar el Patrimonio Cultural de nuestros municipios a la ciudadania.

Por ello, se solicita la consignación como nominativa de esta subvención foral.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**04.** Ondare Historikoa *Patrimonio Histórico*	**333.103** Zabalkundea eta Museoak *Divulgación y Museos.*	**751.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2007/ 0189**: Bilboko Elizbarrutia Erretaulak (Erretaulak mantendu eta zaharberritzea) *Obispado de Bilbao. Retablos (Mantenimiento y Restauración de Retablos)*	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**30.000**

TXOSTENA:

Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikuluak dio diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango direla: *"a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak*".

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzen duen otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren Lehenengo Artikuluaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurreikusitako diru-laguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez, zehazki Kultura Ondareko Zerbitzuaren bitartez, arreta berezia jartzen du Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat interesgarriak diren ondasunak berreskuratzeko jardunean.

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: "*a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia"*.

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Euskera y Cultura y Deporte, concretamente desde su Servicio de Patrimonio Cultural, dedica especial atención a la recuperación de bienes que presentan interés para el Territorio Histórico de Bizkaia.

Helburu hori lortzeko, foru-aldundiaren kudeaketa-politikak hiru oinarrizko ardatz ditu:

- Ikerketa
- Zaharberrikuntza-kontserbazioa
- Hedapena

Hori esanda, 2023ko ekitaldiari begira, Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat eta beharrezkotzat jotzen du ondare higigarri erlijiosoa berreskuratzeko politika jarraitzea. Izan ere, ondare higigarri erlijiosoak interes historikoa, artistikoa eta soziala du, zalantzarik gabe, Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuko eliz ondarea Eliza Katolikoarekin dago lotuta arrazoi historikoak direla medio. Eta gainera, arlo kuantitatibotik nahiz kualitatibotik, Eliza Katolikoaren jabetzako ondarea da garrantzitsuena, Bizkaian dagoen ondare kultural eta historikoko higigarrien nahiz higiezinen aldetik.

Bizkaiko arte higigarri erlijiosoari eta erretaulei dagokienez, oro har esan behar da Bizkaian dauden arte-lanen erakusgarri bakarra direla, horietako zenbait bikainak. Gainera, garai historiko ezberdineko higiezinak biltzen dituzte. Horiek ere Lurraldeko Kultur Ondarearen baitan sartzen dira eta, aldi berean, Bizkaiko arkitektura erlijiosoaren bilakaera ematen dute aditzera.

Ildo horretan, ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Elizbarrutiaren arteko lankidetza, Kultur Ondarea, kasu honetan higigarria, egoera onean mantentzeko, egungo herritarrek nahiz geroko belaunaldiek ondare hori gozatzeko eta sakonago ezagutzeko aukera izan dezaten. Jarduketa-eremu horretan, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/90 Legean ezarrita dagoenez, administrazio eskudunak lagundu egingo die Kultur Intereseko Ondasunen titularrak diren erakundeei.

En este sentido su política de gestión gira en torno a tres ejes fundamentales:

- Investigación
- Restauración-Conservación
- Difusión

Dicho esto, de cara al ejercicio 2023 la Diputación Foral de Bizkaia, considera adecuado y necesario dar continuidad a la política de recuperación del patrimonio mueble religioso, que cuenta con indudable interés histórico, artístico y social para el Territorio Histórico de Bizkaia.

El Patrimonio eclesiástico en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia está ligado por razones históricas a la Iglesia Católica. Y por añadidura, tanto en su consideración cuantitativa como cualificativa, el patrimonio propiedad de la Iglesia Católica es el de mayor relevancia, tanto a nivel mueble como inmueble del patrimonio cultural e histórico existente en Bizkaia.

Llegados al arte mueble religioso y los retablos de Bizkaia en general, son una muestra única de obras de arte que residen en Bizkaia, algunas de ellos de una manufactura brillante, que además tienen como contenedor inmuebles de diferentes épocas históricas, que también conforman el Patrimonio Cultural del Territorio, a la vez que dejan entrever la evolución de la arquitectura religiosa en Bizkaia.

En este sentido, la colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Obispado de Bilbao se hace absolutamente necesaria, con el objeto de que el Patrimonio Cultural, en este caso de tipología mueble, se conserve en adecuadas condiciones y así tanto la población actual como las generaciones futuras, tengan la oportunidad de poder disfrutar del mismo y conocerlo más en profundidad. En este marco de actuación, la Ley 7/90 de Patrimonio Cultural Vasco, establece que la Administración competente colaborará con aquellas entidades que sean titulares de Bienes de Interés Cultural.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

Halaber, nabarmentzekoa da ezen, Bizkian dagoen Kultur Ondarea birgaitzeko edota zaharberritzeko jarduketak, erlijiosoa barne -aztergai dugun kasuan halakoa da-, Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuak izendaturiko lehentasunezko jardueren zerrendan jasota daudela. Zerrendaren bidez, horrelako jarduketen garrantzia balioetsi nahi da, zeren eta ondarea mantentzeko eta etorkizunean ez galtzeko beharrezkoak baitira nolanahi ere.

Arte-adierazpenaren etsenplu bakarra den ondare horren berezitasuna ikusita, justifikatuta dago diru-laguntzen ohiko deialdia ezin erabiltzea lortu nahi diren helburuak lortzeko, hots, ondarea mantentzeko eta kontserbatzeko ezinbesteko eta beharrezko laguntza ematea. Horri esker, Euskal Kultur Ondarearen 6/19 Legeak ezarritako legezko betebeharra bete da. Izan ere, lege horretan xedatu denez, administrazio eskudunak lagundu egin behar die Kultur Intereseko Ondasunen titularrak diren erakundeei, kasu honetan Bilboko Elizbarrutiari.

Horri gehitu behar zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren azken txostenean bildutako gomendioa, hauxe baitio, diru-laguntza zuzenean ematearen kontrako eragozpenak jarri ondoren: *"azken ekitaldietan errepikatu den emakida da eta, beraz, ez du horrelako emakidetarako behar den ezohiko izaera"*. Azkenean, berriz, hauxe dio: "*Uste dugu BFAk aurrekontuan izendun gisa sartu beharko lituzkeela berariazko proiektuei dagozkien diru-laguntzak, eta gainerakoentzat deialdi publiko egokia egin"*.

Azaldutakoa dela eta, foru diru-laguntza norbaiten izenean zainpetzea eskatzen da.

Es de reseñar asimismo que las intervenciones de rehabilitación y/o restauración conservación sobre el Patrimonio Cultural sito en Bizkaia, incluido el religioso, como el caso concreto que nos ocupa, figuran en el listado de actividades prioritarias declarado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, buscando con ello poner en valor la relevancia de este tipo de actuaciones, necesarias en todo caso para su preservación y pervivencia a futuro.

La singularidad de este patrimonio, ejemplo único de manifestación artística, justifica la imposibilidad de utilizar una convocatoria ordinaria de subvenciones para alcanzar los objetivos perseguidos, que no son otros que el necesario e imprescindible apoyo a su mantenimiento y conservación, dando así con ello además cumplimiento a la obligación que legalmente impone la Ley 6/19 de Patrimonio Cultural Vasco, al establecer que la Administración competente colaborará con aquellas entidades que sean titulares de Bienes de Interés Cultural, en este caso el Obispado de Bilbao.

A ello ha de unirse finalmente la recomendación recogida en el último informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que tras objetar su otorgamiento vía subvención directa por cuanto *"se trata de una concesión reiterada en los últimos ejercicios y carente por tanto del carácter excepcional que se requiere para este tipo de concesiones"*, termina señalando: "*Consideramos que la DFB debería incluir como nominativas en el presupuesto aquellas subvenciones que corresponden a proyectos específicos y para el resto realizar la correspondiente convocatoria*".

Por lo expuesto se solicita la consignación como nominativa de esta subvención foral.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / ***DEPARTAMENTO***	**ATALA** / ***SECCION***	**EGITARAUA** / ***PROGRAMA***	**AZPIKON.** ***SUBCONCEP.***
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**04.** Ondare Historikoa Patrimonio Histórico.	**336.107**: Higiezin-ondarea eta Arkeologia. Patrimonio Inmueble y Arqueologia	**451.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2007/ 0291**: Labayru Fundazioa. Euskarari eta Kultura Ondareari buruzko jarduerak *Labayru Fundazioa. Actividades Euskera y Patrimonio Cultural*	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**50.000**

TXOSTENA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera, Kultura eta Kirol Sailak kulturaren arloko hainbat adierazpen antolatu eta sustatzen ditu Bizkaiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren izen ona bultzatzeko hemen, Estatuan eta nazioartean. Zentzu horretan, interesekoak diren mota guztietako kultur ekimenak bultzatzeko neurriak ezarri behar dira, batez ere euskal kultura balioztatzea xede dutenak.

Gure hizkuntza eta kulturarekin zerikusia duen oro ikertzeko eta zabaltzeko esparru horretan kokatzen dugu Estanislao J. De Labayru Elizbarrutiko Ikastegia. Izan ere, ikastegiaren jardun-esparrurik garrantzitsuena euskal hizkuntza eta literaturaren ikerkuntza eta irakaskuntza, euskararen erabilera normalizatzeko planak, itzulpena, herri-ondarearen bilketa eta etnografia dira.

INFORME:

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia organiza y promueve diversas manifestaciones de carácter cultural que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral, tanto a nivel de País, como de Estado e internacionalmente. En este sentido se considera necesario impulsar medidas que redunden en apoyar todo tipo de iniciativas culturales de interés, especialmente aquellas destinadas a poner en valor lo que la cultura vasca representa.

En ese marco de investigación y difusión de todo lo relacionado con nuestra lengua y cultura situamos al Instituto Diocesano Estanislao J. de Labayru, cuyo campo de actuación más importante lo constituyen la investigación y enseñanza de la lengua y literatura vascas, los planes de normalización para el uso del euskera, la traducción, la recogida del patrimonio popular y la etnografía.

Azken arlo horretan, ohiturazko bizimoduak, teknikak eta eskulanak, erabilerak eta erakundeak, eta Euskal Herriko lurraldean erroturik egon diren sinesmenak eta errituak deskribatuko dituen atlas etnografiko bat egitea, eta, hala, Euskal Herriko ondare etnologikoaren sarea osatzea, XX. mendeko euskal etnograforik sonatuenak diseinaturiko proiektua da: aita Jose Migel Barandiaranek, alegia. Euskal kultura osatzen duten alderdi guztiak modu sistematikoan erregistratzeko saioa konstante bat izan zen ikerkuntzari eskainiriko haren bizialdi luzean.

Proiektu hori burutzeko, aita Jose Migel Barandiaranek proposatu zuen zundaketen moduko bilaketa sistematikoak egitea, eta bilaketa horiek, ondoren, Euskal Herriko eskualdeetan kokaturiko herriei buruzko monografia etnografikoak idatziz gauzatzea. Ikerkuntza-plan hori galdetegi orokor batekin bideratu zen. Galdetegi horren azken idatzaldia 1974. urtean amaitu zen, eta Guía para una encuesta etnográfica izenburua ipini zitzaion. Horretarako, lan-taldeak eratu behar ziren, Atlas Etnografikoak hartuko zuen eremu osoan zehar banaturik. Modu horretara, taldeen federazio bat sortu zen, Euskal Herriko lurralde bakoitzean talde bat eratuz. Talde horiei ETNIKER izena ipini zitzaien; laburtzapen hori “etnografia” terminotik eta “ikertu” euskarazko hitzetik dator. Talde horiek osatzen dituzten kideek unibertsitate-prestakuntza dute, landa-ikerkuntzarako metodologia etnografikoko ikastaroak egin dituzte, eta kultura tradizionala eta XIX. mendearen bukaeratik kultura horretan izaten ari diren aldaketak aztertzen saiatzen dira. Zehazki, Pirinioetako mendebaldeko muturrean kokaturiko lurraldea aztertzen dute, iparraldean Aturri ibaiak eta hegoaldean Ebro ibaiak mugatzen dutena, tradizioan Vasconia edo Euskal Herria deitu izan dena.

Modu horretara, Etniker Euskalerria taldeek —horko partaide da Etniker Bizkaia, eta egoitza soziala eta idazkaritza teknikoa Estanislao J. De Labayru Elizbarrutiko Ikastegiko Etnografia Sailean ditu— 1989. urtetik dihardute aita Jose Migel Barandiaranek diseinatu zuen Euskal Herriko Atlas Etnografiko hau egiten. Hain zuzen- Orain arte, lau

En ese último ámbito, la elaboración de un Atlas etnográfico que describiera los modos de vida, las técnicas y las artesanías, los usos y las instituciones consuetudinarias, las creencias y los ritos que han tenido arraigo en el territorio de Vasconia conformando el entramado de su patrimonio etnológico, es un proyecto diseñado por el más destacado etnógrafo vasco del pasado siglo XX: Don José Miguel de Barandiaran. El intento de registrar de un modo sistemático todos los aspectos que componen la cultura vasca fue una constante en su prolongada vida dedicada a la investigación.

12.- Kondaira-Lurraldearen jabetzapeko Agiri-gordetegi, Liburutegi, eta Arte Ederrei eta Eskulangintzari datxezkien Erakustetxe eta Erakundeak.

13.- Kondaira-Lurraldearentzat interesgarritasuna izan dezaten kultura-sailak sortaraztea eta horiei eustea".

Horrela definitutako esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak uste du arte eszenikoak sustatzeko, sustatzeko eta zabaltzeko proiektuak kudeatzen dituzten erakundeei lagundu behar diela, Bizkaian kultura sustatzeko eta zabaltzeko modu gisa.

Artekale Encuentros Profesionales de las Artes de Calle en Euskadi elkartea 2004an sortutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da eta garrantzitsua da Kaleko Arteen sustapenean eta zabalkuntzan Euskal Herrian.

Kaleko Arteen xedea da egiaztatzea espazio publikorik gabe ez dagoela gizarterik eta ez dagoela herritartasunik espazio publikorik gabe. Halaber, kaleak ez direla bakarrik kontsumorako, eta inspiraziorako eta sorkuntzarako espazioak ere badirela. Artekale Encuentros Profesionales de las Artes de Calle en Euskadi Elkarteak mota horretako arteen sustapenean eta zabalkuntzan egiten duen lana funtsezkoa da Bizkaiaren panorama kulturalean eta bere izaera bakarra eta berezia azpimarratu behar dira, Elkartean sektoreko era askotako profesionalak biltzen direlako: artistak, jaialdiak eta banatzaileak. Horien guztien xedea kaleko artea duintzea da.

"Los Órganos Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva, que ejercitarán de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en las siguientes materias:

12.- Archivos, Bibliotecas, Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía, de titularidad del Territorio Histórico.

13.- Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico".

En el marco así definido, el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia entiende que debe apoyar a las entidades que gestionan proyectos dirigidos a promocionar, fomentar y difundir las artes escénicas como una forma de promocionar y difundir la cultura en Bizkaia.

La Asociación Artekale Encuentros Profesionales de las Artes de Calle en Euskadi es una entidad sin ánimo de lucro creada en 2004, relevante en la promoción y difusión de las Artes de Calle en el territorio vasco.

Las Artes de Calle intentan demostrar que sin espacio público no hay sociedad, y que no hay ciudadanía sin espacio público, así como que las calles no son sólo consumo sino también fuente de inspiración y creación. La labor de la Asociación Artekale Encuentros Profesionales de las Artes de Calle en Euskadi en favor de la promoción y difusión de este tipo de artes, resulta esencial en el panorama cultural de Bizkaia destacando su carácter único y peculiar, toda vez que en ella confluyen diferentes profesionales del sector: artistas, festivales y distribuidoras. Todos ellos con el objetivo de dignificar el arte de calle.

Elkarte honek, kaleko arteak bideratu eta sustatu ez ezik, aldi berean bilgune eta elkar truke lanak burutzen ditu jaialdi, azoka eta ekitaldien artean eta kaleko arteetako profesionalentzako prestakuntza eskaintzen du. Artekale jarduera profesionalak diseinatzeaz eta antolatzeaz arduratzen da, programatzaileak gonbidatuz, merkatuko aukera eta artisten, programatzaileen eta sektoreko profesionalen arteko sinergiak bultzatuz.

Proiektu aparta da, kaleak garapen pertsonaleko naturagune gisa aldarrikatzen jarraitzeko moduari buruz hausnartzea lortu nahi baitu, batez ere haur eta gazteentzat, elkartzeko, garatzeko, sortzeko eta inspiratzeko leku gisa, eta gizartea eraldatzeko elementu gisa, espazio publikoa gizarte-harremanetarako eta eraikuntza kolektiborako leku gisa ulertuta. Horretarako, bi ekintza-ildo proposatzen dituzte: gogoeta- eta jarduera-ildoa, kaleko arteak egokitzeko esperientzia-trukeetan eta proposamenetan oinarrituta, eta, aldi berean, aurrez aurreko aurkezpen eta topaketa profesionalak, beren sorkuntzak erakustea alde batera utzi gabe.

Horregatik guztiagatik, eta aipatutako 2/2012 Foru Araua jarraituz , dirulaguntza hori deialdi arrunt batean sartzeko ezintasuna gehitu behar da; izan ere, dirulaguntza definitzen duten berezko ezaugarriek, erakunde onuradunaren izaerarekin batera, ezohiko berezitasun bat ematen diote, eta horrek eragotzi egiten du Euskara, Kultura eta Kirol Sailak erakunde publikoek eta elkarteek eta fundazioek sustatzen dituzten proiektuei laguntzeko sustatzen dituen deialdietan sartzea.

Esta asociación no sólo favorece y difunde las artes de calle, sino que también actúa como punto de encuentro e intercambio en el marco de distintos festivales, ferias y eventos, y ofrece formación para los profesionales de las artes de calle. Artekale se encarga de diseñar y organizar las actividades profesionales, invitando a programadores, potenciando la oportunidad de mercado y las sinergias entre artistas, programadores y profesionales del sector.

Se trata de un proyecto de actividades que pretende y consigue reflexionar sobre cómo seguir reivindicando las calles como espacios naturales de desarrollo personal, especialmente para la infancia y la juventud, como lugares de encuentro, de desarrollo, de creación y de inspiración, y como elemento transformador de la sociedad, entendiendo el espacio público como un lugar de relación social y de construcción colectiva. Para ello, plantean una doble línea de acción: de reflexión y actividad, en base a intercambios de experiencias y propuestas al mismo tiempo que realizan presentaciones y encuentros profesionales de carácter presencial sin dejar a un lado la exhibición de sus creaciones.

Por todo ello, y a efectos de dar cumplimiento a la Norma Foral 2/2012, debe añadirse la imposibilidad de incluir esta subvención en una convocatoria ordinaria, ya que las características intrínsecas que definen la misma, juntamente con la naturaleza de la entidad beneficiaria, la dotan de una singularidad excepcional que impide su encaje en las convocatorias promovidas desde el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte en apoyo de proyectos que son impulsados por entidades públicas y asociaciones y fundaciones privadas.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / ***DEPARTAMENTO***	**ATALA /** ***SECCION***	**EGITARAUA /** ***PROGRAMA***	**AZPIKON.** ***SUBCONCEP.***
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**05** Kultur Ekintza *Acción Cultural*	**334.104:** Kultura Zabalkundea *Extensión Cultural*	**451.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2021/0049**: Asoc. Ziortzako Kontzertuak Kultur Elkartea (Ziortzako kontzertuak)	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**50.000**

TXOSTENA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.artikuluak hurrengo diru-laguntzak zuzenean emateko aukera jasotzen du: "a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak".

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurreikusitako diru-laguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten·osca joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko Legeak, II. Atalburua.- Kondaira-Lurraldeen Agintepideez izenekoan, ondoren hitzez hitz emandakoa jasotzen du a) atalean:

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: “a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia”.

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

La Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en su Capítulo II.- De las competencias de los Territorios Históricos, establece en su apartado a) lo que a continuación se transcribe:

"Lurralde Historikoetako foru-organoek eskumen esklusiboa dute, bakoitzaren araubide juridiko pribatiboaren arabera erabiliko dutena, honako arlo hauetan:

12.- Kondaira-Lurraldearen jabetzapeko Agiri-gordetegi, Liburutegi, eta Arte Ederrei eta Eskulangintzari datxezkien Erakustetxe eta Erakundeak.

13.- Kondaira-Lurraldearentzat interesgarritasuna izan dezaten kultura-sailak sortaraztea eta horiei eustea".

Hala definituriko esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak uste du ezen oro har musikaren arloko proiektuak kudeatzen dituzten erakundeak funtsezkoak direla Lurraldeko kultura-elkartegintza sustatzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko eta, batez ere, musika modalitate guztietan sustatzeko , bereziki azpimarratuz Bizkaiko kultura-eskaintzan presentzia txikia duten modalitateak, hala nola antzinako musika.

Erakunde onuradunak, Ziortzako Kontzertuak ekitaldiaren antolaketaren bidez, kalitate eta interes handiko antzinako musika programazioa eskaintzen du hainbat asteburutan. Ekitaldiari esker Bizkaiko kultur programazioan antzinako musika entzuteko aukera dago, eta aukera horiek ez dira asko izaten. Gainera, ekitaldia Ziortzako Kolegiatarekin hertsiki lotuta dago. Kolegiata XIV. mendean sortu zen, Bizkaiko Donejakue Bidearen erreferentea da eta interes kulturaleko ondasuna da. Bizkaiko Foru Aldundiak zaharberritu zuen laurogeiko hamarkadan, eta Nafarroako Santa Maria de la Olivako abadiatik etorritako monje zistertarren komunitate batek zaintzen du.

Ziortzako Kontzertuak ekitaldiak, alde batetik, antzinako musikaren zabalkundea eta, bestetik, Bizkaiko kultur ondarea nabarmentzen ditu.

"Los Órganos Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva, que ejercitarán de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en las siguientes materias:

12.- Archivos, Bibliotecas, Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía, de titularidad del Territorio Histórico.

13.- Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico".

En el marco así definido, el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia entiende que las entidades que gestionan proyectos en el ámbito de la música en general son pieza clave en el entramado asociativo cultural del Territorio para el fomento, promoción y difusión de la cultura en general y en especial de la música en todas sus modalidades, haciendo especial hincapié en modalidades de escasa presencia en la oferta cultural de Bizkaia como es el caso de la música antigua.

La entidad beneficiaria, mediante la organización del evento Ziortzako Kontzertuak, ofrece una programación de música antigua de elevada calidad y gran interés durante varios fines de semana. El evento posibilita una de las escasas opciones de escuchar música antigua en la programación cultural de Bizkaia. Además el evento se realiza y está intimamente vinculado a la Colegiata de Ziortza, fundada en el siglo XIV, referente del Camino de Santiago en Bizkaia y bien de interés cultural, restaurado por la Diputación Foral de Bizkaia en los años ochenta y regentado por una comunidad de monjes cistercienses procedentes de la Abadia de Santa María de la Oliva en Navarra.

El evento Ziortzako Kontzertuak pone en valor por un lado la difusión de la música antigua y por otro el patrimonio cultural de Bizkaia.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen arloan, beharrezkotzat jotzen du Bizkairako interes orokorra duten era guztietako kultur ekimenak sustengatzeko neurriak bultzatzea, eta bereziki arte eszenikoen sustapenarekin eta zabalkundearekin loturikoak (musika, dantza eta arte dramatikoa), betiere arte horiek Lurralde Historikoko udalerrietan eta mankomunitateetan indartu nahian.

Esparru horretantxe kokatzen dugu Euskara, Kultura eta Kirol Sail honek ASOC. ZIORTZAKO KONTZERTUAK KULTUR ELKARTEARI laguntza ekonomikoa ematea, Ziortzako KONTZERTUAK KULTUR ELKARTEAK Bizkaiko kultur programazioan antzinako musika entzuteko aukera urrietako bat eskaintzen baitu. Gainera, ekitaldia Ziortzako Kolegiatarekin hertsiki lotuta dago, XIV. mendean sortua, Bizkaiko Donejakue Bidearen erreferentea dena eta interes kulturala duena.

Hori guztia kontuan izanik eta otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauko artikulu bakarra betetzeko, esan behar da ezinezkoa dela diru-laguntza ohiko deialdian sartzea, zeren eta diru-laguntza definitzen duten berezko ezaugarriek eta erakunde onuradunaren izaerak aparteko berezitasuna ematen baitiote eta berezitasun horrek galarazi egiten baitu Foru Sail honek kultur proiektuak bultzatzeko susaturiko deialdietan kokatzea. Izan ere, erakunde publikoek eta elkarte eta fundazio pribatuek bultzaturiko proiektuak dira.

Aipaturiko inguruabarrei erreparatuta, nahikoa zurituta dagoela uste da eta, beraz, foru laguntza eman egingo da.

Por su parte, la Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de sus competencias, considera necesario impulsar medidas que redunden en apoyar todo tipo de iniciativas culturales de interés general para Bizkaia y muy especialmente las que hacen referencia a las relacionadas con la promoción, el fomento y la difusión de las artes escénicas (música, danza y arte dramático), en un esfuerzo por su consolidación en diferentes municipios y mancomunidades del Territorio Histórico.

En este marco es donde situamos el interés de este Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en apoyar económicamente a la ASOC. ZIORTZAKO KONTZERTUAK KULTUR ELKARTEA, ya que posibilita una de las escasas opciones de escuchar música antigua en la programación cultural de Bizkaia. Además el evento se realiza y está intimamente vinculado a la Colegiata de Ziortza, fundada en el siglo XIV, referente del Camino de Santiago en Bizkaia y bien de interés cultural.

A lo anterior y a efectos de dar cumplimiento al artículo único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, debe señalarse la imposibilidad de incluir esta subvención en una convocatoria ordinaria, ya que las características intrínsecas que definen la misma, juntamente con la naturaleza de la entidad beneficiaria, la dotan de una singularidad excepcional que impide su encaje en las convocatorias promovidas desde este departamento foral en apoyo de proyectos culturales que son impulsados por entidades públicas y asociaciones y fundaciones privadas.

Atendiendo por tanto a las circunstancias señaladas, se considera queda suficientemente justificado y procede por tanto la concesión de esta ayuda foral.

Horregatik guztiagatik, eta jakitun izanik Bizkaiko gizartearentzat oso garrantzitsua dela ospe handiko kultura-erakundeak izatea, hala nola erakunde onuraduna eta 2023an garatu beharreko proiektuaren kalitatea; izan ere, alde batetik, oro har musika herritarren artean sustatutzea eta zabaltzez aipatzen du, eta, bestetik, sortzen ari diren sortzaileei eta musika talde eta bakarlariei laguntzea. Hortaz, interes sozial eta publikoagatik, Foru Erakunde honek dirulaguntza emango dio ASOC. ZIORTZAKO KONTZERTUAK KULTUR ELKARTEARI 2023rako.

Por todo lo expuesto, y siendo conscientes de la importancia que tiene para la sociedad vizcaína contar con entidades culturales de reconocido prestigio como es el caso de, entre otras, la entidad beneficiaria, así como la calidad del proyecto a desarrollar durante el año 2023, que, de una parte, hace referencia a la promoción y difusión de la música en general entre la ciudadanía y, de otra, al apoyo a las personas creadoras-emergentes y a los grupos y solistas musicales, son razones de interés social y público las que justifican el apoyo de esta Institución Foral a ASOC. ZIORTZAKO KONTZERTUAK KULTUR ELKARTEA para el año 2023.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / ***DEPARTAMENTO***	**ATALA /** ***SECCION***	**EGITARAUA /** ***PROGRAMA***	**AZPIKON.** ***SUBCONCEP.***
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**05** Kultur Ekintza *Acción Cultural*	**334.104:** Kultura Zabalkundea *Extensión Cultural*	**451.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2022/0076**: JALGI Fundazioa (BIRA egitasmoa). *JALGI Fundazioa (Programa BIRA)*	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**20.000**

TXOSTENA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.artikuluak hurrengo diru-laguntzak zuzenean emateko aukera jasotzen du: "a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak".

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurreikusitako diru-laguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten·osca joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko Legeak, II. Atalburua.- Kondaira-Lurraldeen Agintepideez izenekoan, ondoren hitzez hitz emandakoa jasotzen du a) atalean:

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: “a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia”.

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

La Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en su Capítulo II.- De las competencias de los Territorios Históricos, establece en su apartado a) lo que a continuación se transcribe:

"Lurralde Historikoetako foru-organoek eskumen esklusiboa dute, bakoitzaren araubide juridiko pribatiboaren arabera erabiliko dutena, honako arlo hauetan:

12.- Kondaira-Lurraldearen jabetzapeko Agiri-gordetegi, Liburutegi, eta Arte Ederrei eta Eskulangintzari datxezkien Erakustetxe eta Erakundeak.

13.- Kondaira-Lurraldearentzat interesgarritasuna izan dezaten kultura-sailak sortaraztea eta horiei eustea".

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak era horretako kultura-adierazpenak antolatu eta sustatzen ditu. Ildo horretatik, uste du beharrezkoa dela Bizkaian interes orokorreko kultura-ekimen mota guztiak sustatzea.

JALGI FUNDAZIOA 2015ean sortu zen, kultura bere adierazpen, dimentsio edo esparru guztietan sustatu eta garatzeko. Horretarako, komunitatearen hezkuntza, parte-hartzea eta aktibazioa sustatzen ditu kultura-eremuan, igorle-hartzaile zentzu dualean.

BIRA Fundazioaren kultura-proiektu bat da eta helburu orokorrak hauek ditu:

- Nagusiki euskaraz sortutako kultura irakastea, ahal dela Bizkaian eta Bilbon prestatutakoa, gazteek eta emakumeek emana. Hau da, sormenaren bidez erabilera sustatzea.

- Euskal sortzaileei leku bat eskaintzea. Plaza eskaintzea, euskaraz sortzen duen pertsona orori aukera bat ematea, hasiberria edo sagaratua izan.

- Edozein kultura-adierazpeni lekua egitea, betiere proiektuaren formatu txikira egokitzen bada.

"Los Órganos Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva, que ejercitarán de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en las siguientes materias:

12.- Archivos, Bibliotecas, Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía, de titularidad del Territorio Histórico.

13.- Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico".

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia organiza y promueve diversas manifestaciones de carácter cultural. En este sentido se considera necesario impulsar medidas que redunden en apoyar todo tipo de iniciativas culturales de interés general para Bizkaia.

JALGI FUNDAZIOA se constituye en 2015 con objeto de fomentar, promocionar y desarrollar la cultura en todas sus manifestaciones, dimensiones o ámbitos. Para ello promueve la educación, la participación y la activación de la propia comunidad en el ámbito cultural, en un sentido dual de persona emisora-receptora.

BIRA es un proyecto cultural de la Fundación y son sus objetivos generales:

- Inculcar la cultura creada principalmente en euskera, preferiblemente formada en Bizkaia y Bilbao, aportada por las personas jóvenes y las mujeres. Esto es, potenciar su uso por medio de la creatividad.

- Ofrecer un lugar a los creadores y las creadoras vascas. La filosofía de BIRA es ofrecer plaza, dar una oportunidad a toda persona que crea en euskera, sea una persona novata o consagrada.

- Dar cabida a cualquier manifestación cultural siempre que se adecúe al pequeño formato del proyecto.

- Euskarazko kultura indartzea, euskarazko kultura-eskaintza prestigiatu eta handitu nahi duten proiektuak ekarriz.

- Euskal hiztunen komunitatea indartzea kulturaren bidez, euskararen erabilera zein gizarte-eremutan heda daitekeen ikusiz, eremu horietan eragiteko.

- Proiektu indartsu bat sendotzea eta sare kulturaletan parte hartzea.

BIRAk denetariko kultura-proposamenak hartzen eta babesten ditu: kontzertuak, bertso-saioak, emanaldi performatiboak, dantza, antzezlanak, inprobisaziozko antzerkia, magia, literatura-ikuskizunak, erakusketak, kulturaren inguruko mahainguruak, aurkezpenak, haurrentzako saioak, folkeko jam-saioak, swing tailerrak, eta abar.

Aipatutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.a) artikuluan ezarri diren betekizunak betetzearen ondoreetarako eta, aldi berean, dirulaguntzaren bide hori justifikatzeko, adierazi behar da ezinezkoa dela proiektu hori deialdi arrunt batean sartzea. Izan ere, proposamen horretan, literatura, bertsolaritza, folk musika edo antzerkia bezalako diziplina anitzak euskararen bidez konektatzen dira hari nagusi gisa, eta diziplina anitzeko diskurtsoa eta belaunaldi artekoa sortzen ditu. Diskurtso horretan, publiko orokorrak, artista gazteek eta beste batzuek, eta dagoeneko ezagunak diren beste batzuek, espazioak eta esperientziak partekatzen dituzte. Horrela, eta euskararen bidez eta gure hizkuntzak ordezkatzen duen guztiaren bidez, komunitate moduko bat sortzen da, eremu kulturaletik haratago doana, gure idiosinkrasia aldarrikatzen eta balioesten duen tresna bihurtzeko.

Proposamena osatzen duten jarduera guzti-guztiak ezaugarritzen dituen gizarte-esanahi horrek aparteko berezitasuna ematen dio proposamenari, eta Sail honek kudeatzen dituen ohiko deialdietako batean sartzeak bere funtsa hutsaldu baino ez luke egingo.

- Fortalecer la cultura en euskera, trayendo proyectos que quieran prestigiar y aumentar la oferta cultural en euskera.

- Fortalecer la comunidad vascoparlante por medio de la cultura, observando en qué ámbitos sociales se puede extender la utilización del euskera para incidir sobre ellos.

- Consolidar un proyecto potente y participar en las redes culturales.

BIRA acoge y apoya todo tipo de propuestas culturales: conciertos, actuaciones de versolaris, actuaciones de performance, danza, obras de teatro, teatro improvisado, magia, espectáculos literarios, exposiciones, mesas redondas en torno a la cultura, presentaciones, sesiones infantiles, jam-session de folk, talleres de swing, etc.

A los efectos de dar cumplimiento a la exigencia del mencionado art. 20.2.a) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y que justifica esta vía subvencional, ha de señalarse la imposibilidad de incluir este proyecto en una convocatoria ordinaria, ya que se trata una propuesta en la que disciplinas tan diversas como la literatura, el versolarismo, la música folk o el teatro, se conectan a través del euskera como hilo conductor, generando un discurso multidisciplinar a la vez que intergeneracional, en el que tanto el público en general como jóvenes artistas y otras y otros ya consagrados comparten espacios y experiencias. De este modo, y a través del euskera y todo lo que nuestro idioma representa, se genera una suerte de comunidad que trasciende el ámbito estrictamente cultural para convertirse en un instrumento que reivindica y pone en valor nuestra propia idiosincrasia.

Esta significación social que caracteriza todas y cada una de las actividades que conforman la propuesta, dotan a la misma de una singularidad extraordinaria, cuyo encaje en una de las convocatorias ordinarias gestionadas desde este Departamento no haría sino desvirtuar su propia esencia.

Testuinguru horretan, argi dago Diputazio honek interesa duela eskatutako laguntza emateko; izan ere, lankidetza horren helburua da kulturari eta euskarari buruzko erakundeen proiektuak sustatzea, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen-ildoetako bat baita.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta erakunde onuradunaren esperientzia eta bultzatu nahi duen proiektua, interes sozial eta publikoko arrazoiak dira, Foru Erakunde honek, 2023. urtean, JALGI FUNDAZIOAri laguntza ematea justifikatzen dutenak.

En este contexto, resulta claro el interés de esta Diputación en la concesión de la ayuda solicitada ya que esta colaboración tiene como objeto promover proyectos de entidades relativos a la cultura y al euskera, que es una de las líneas competenciales del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Por todo lo expuesto, y teniendo en cuenta la experiencia de la entidad beneficiaria y el proyecto que plantea impulsar, son razones de interés social y público las que justifican el apoyo de esta Institución Foral a JALGI FUNDAZIOA en el año 2023.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**06.** Euskara Euskera	**335.106:** Euskararen Sustapena *Promoción Euskara*	**429.00**

PROIEKTUA *PROYECTO*	**2019/ 0081:** Instituto de Euskara (UPV/EHU)- Egungo Euskara Hiztegia *Instituto de Euskara (UPV/EHU)- Egungo Euskara Hiztegia*	ZENBATEKOA *IMPORTE*	**11.000**

TXOSTENA:

Laguntzaren xedea: partez finantzatzea «Egungo Euskararen Hiztegia» proiektua».

Interes publiko eta sozialeko arrazoiak: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikuluak dio dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango direla: «a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak».

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzen duen 2012ko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurrez ikusitako dirulaguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

INFORME:

Objeto de la subvención: financiación parcial del proyecto «Egungo Euskararen Hiztegia».

Razones de interés público y social: El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: «a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia».

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

Euskara Institutuarentzat (UPV/EHU) 2022ko ekitaldian «Egungo Euskararen Hiztegia» proiektua partez finantzatzeko aurrez ikusitako foru-dirulaguntza izendunari dagokionez, argi dago dirulaguntza erakunde horri ematea ezin sar daitekeela dirulaguntzen ezein deialdi publikotan, zeren eta dirulaguntza hau definitzen duten berezko ezaugarrien eta erakunde onuradunaren izaeraren ondoriozko berezitasunak direla-eta proiektu hau ezin izango litzateke sartu Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen deialdi publiko orokorren baitan.

En el caso de la subvención foral nominativa prevista para Instituto de Euskara (UPV/EHU) para financiar parcialmente durante el ejercicio 2022 el proyecto «Egungo Euskararen Hiztegia», es claro que la concesión de esta subvención a la citada institución no puede ser encuadrada en ninguna convocatoria pública de subvenciones, dado que las características intrínsecas que definen dicha institución juntamente con la naturaleza singular de la entidad beneficiaria la dotan de una particularidad excepcional que imposibilita enmarcar la subvención dentro de las convocatorias públicas generales de subvención para la promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Proiektu horren interes publiko hori bista-bistakoa delarik gure nortasun-balioak berreskuratu eta biltzeko lanetan laguntzeko zalantzarik gabeko beharrizanaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak, eta zehazki Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Bizkaiko kultur eta hizkuntz ondarea bere agerpen guztietan kontserbatu eta zabaltzeko eta ondare hori datozen belaunaldiei modu egokian transmititzeko beharrezko jarduera eta egitarau guztiak garatu eta laguntzeko duen ezinbesteko erakunde-konpromisoa ere betetzeko.

Dicho proyecto se entiende de gran interés público, interés que resulta evidente atendiendo no sólo a la necesidad indiscutible de contribuir a las labores de recuperación y recopilación de nuestros valores identitarios, sino también de cumplir con el compromiso institucional ineludible de esta Diputación Foral y concretamente de su Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, de conservar y difundir el legado cultural y lingüístico de Bizkaia en todas sus manifestaciones y desarrollar y apoyar cuantas actividades y programas sean precisos para su más correcta transmisión a las generaciones venideras.

Horri gehitu behar zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren azken txostenean bildutako gomendioa, hauxe baitio: «BFAk izendun gisa sartu beharko lituzke aurrekontuan berariazko proiektuei dagozkien diru-laguntzak».

A ello ha de unirse la recomendación recogida en el último informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, al considerar «que la DFB debería incluir como nominativas en el presupuesto aquellas subvenciones que corresponden a proyectos específicos».

Azaldutakoa dela eta, foru-dirulaguntza norbaiten izenean zainpetzea eskatzen da.

Por lo expuesto se solicita la consignación como nominativa de esta subvención foral.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**06.** Euskara Euskera	**335.106:** Euskararen Sustapena *Promoción Euskara*	**432.99**

PROIEKTUA *PROYECTO*	**2021/ 0053**: Mancomunidad de la Merindad de Durango *Mancomunidad de la Merindad de Durango*	ZENBATEKOA *IMPORTE*	**17.000**

TXOSTENA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikuluak dio dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango direla: «a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak».

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzen duen 2012ko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurrez ikusitako dirulaguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGOrentzat 2023ko ekitaldian «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» izeneko proiektua garatzeko aurrez ikusitako foru-dirulaguntza izendunari dagokionez, argi dago dirulaguntza entitate horri ematea ezin sar daitekeela dirulaguntzen ezein deialdi publikotan, proiektu bitxia eta apartekoa baita

Lehenengo, proiektu honen bitartez Bizkaiko Foru

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: «a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia».

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

En el caso de la subvención foral nominativa prevista para MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGOpara el desarrollo durante el ejercicio 2023 del proyecto denominado «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» es claro que la concesión de esta subvención a la citada asociación no puede ser encuadrada en ninguna convocatoria pública de subvenciones, por su singularidad y excepcionalidad.

En primer lugar, porque mediante este proyecto se

Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren euskara sustatzeko jarduketa-planaren barruan funtsezko legez agertzen diren helburuak lortu nahi direlako, hala nola hauek: euskararen jakintza eta erabilera zein haren normalizazioaren aldeko jarrerak sustatzea enpresen arloan.

Bigarren, proiektuaren berezko ezaugarriengatik. Izan ere, egitasmoa bat dator Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren helburu estrategikoekin eta, gainera, euskararen zabalkundearen alor kulturaletik harago doa, eta enpresen eremuan ere gizarteratze eta formakuntzarako bokazioa du.

Proiektu honek traktore-lana bete gura du, Durangaldetik hasita Bizkai osora zabaltzeko. Hala, MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGOk lideratzen duen proiektu honek ez ditu xede enpresetan euskara sustatzeko gure deialdian sartu daitezkeen enpresak. Berez euskara planik ez duten enpresetara joko da, eta ikusarazi gura zaie zer beharrizan duten euskararen inguruan.

Enpresek, ondoren, azterketa horretatik abiatuta, erabaki dezakete berariazko euskara plan bat sortzea eta martxan jartzea. Edo beste tresnaren bat erabiltzea ere erabaki dezakete. Euskara planaren bidetik joko balute, orduan bai izango lirateke enpresentzako gure dirulaguntzen deialdiaren xede, zuzen-zuzenean.

Hirugarren, erakunde onuradunaren izaerari dagokionez, proiektu hau ez dator zehatz-mehatz mankomunitateei dirulaguntzak emateko daukagun deialdiaren barruan zehazten diren helburuekin. Gainera, Durangaldeak, eta Durangok bereziki, inguruko eskualdeetan duen erakarmenari begiratuta, proiektu honek inguruko eskualdeetan ere izango du eragina.

pretenden conseguir los siguientes objetivos que se consideran fundamentales por la Dirección General de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia dentro de su plan de actuación para la promoción de la lengua: promover el conocimiento y uso del euskera, así como las actitudes favorables a su normalización en el ámbito de las empresas.

En segundo lugar, por el carácter singular del proyecto, que concuerda con los objetivos estratégicos de la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia, y, además, trasciende del ámbito estrictamente cultural de difusión del euskera y se configura con una decidida vocación socio-formativa en el ámbito de las empresas.

El presente proyecto pretende traccionar a las empresas, empezando por el Duranguesado pero con vocación de extenderse a toda Bizkaia. Las empresas a las que se dirige este proyecto liderado por la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO no son aquellas que pudieran acceder a nuestra convocatoria de subvenciones destinada al fomento del euskara en las empresas, sino que se dirige a las empresas que no tienen un plan de euskera en la actualidad, para que analicen qué necesidades tienen relativas al euskera.

Las empresas podrán, tomando como base dicho análisis, optar por crear y poner en marcha un plan de euskera específico. También podrán elegir implementar alguna otra herramienta. Si optaran por implementar un plan de euskera entonces sí podrían acceder a nuestra convocatoria destinada a empresas.

En tercer lugar, en lo que respecta a la naturaleza de la entidad beneficiaria, el presente proyecto no responde estrictamente a los objetivos que se pretenden alcanzar con nuestra convocatoria de subvenciones destinada a mancomunidades Además, el Duranguesado, y muy especialmente Durango, ejercen de polo de atracción para las comarcas colindantes.

Proiektu hori garrantzi sozial eta kultural handikotzat jotzen da euskararen erabilera sustatzeko, berezi-berezia baita, betiere Bizkaiko Foru Aldundiak Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren bitartez garatzen duen hizkuntza-politikari jarraituz.

Horri gehitu behar zaio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren azken txostenean bildutako gomendioa, hauxe baitio: «BFAk izendun gisa sartu beharko lituzke aurrekontuan berariazko proiektuei dagozkien diru-laguntzak».

Azaldutakoa dela eta, foru-dirulaguntza norbaiten izenean zainpetzea eskatzen da.

Dicho proyecto se entiende de gran importancia social y cultural para la promoción del uso de euskera, en virtud de su carácter singular, y a la luz de la política lingüística que desarrolla la Diputación Foral de Bizkaia, a través de su Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte.

A ello ha de unirse la recomendación recogida en el último informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, al considerar «que la DFB debería incluir como nominativas en el presupuesto aquellas subvenciones que corresponden a proyectos específicos».

Por lo expuesto se solicita la consignación como nominativa de esta subvención foral.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**06.** Euskara Euskera	**335.106:** Euskararen Sustapena *Promoción Euskara*	**443.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2007/ 0326**: Irratibide, S.A. *Irratibide, S.A.*	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**405.000**

TXOSTENA:

Laguntzaren xedea: Irratibideren urteko jarduerak eragindako gastuak partez finantzatzea.

Interes publiko eta sozialeko arrazoiak: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikuluak dio dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango direla: «a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak».

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzen duen 2012ko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurrez ikusitako dirulaguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

INFORME:

Objeto de la subvención: financiar parte del coste de las actividades de Irratibide, S.A.

Razones de interés público y social: El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: «a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia».

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

Irratibide SA Bizkaia Irratiaren jabea da eta irrati hori Bizkaiko bakarra da programazio guztia Bizkai osoarentzat euskara hutsean egiten duena, eta, euskalkien eremuan, Bizkaiko euskara batu edo estandarra hizkuntz eredu legez ezarrita du; hori dela eta, Bizkaia Irratiak Bizkaiko Lurralde Historikoan programazio guztia bizkaieraz egiten du; horrez gain, etxeko euskaratik baturanzko zubia egiten duen Bizkaiko Lurralde Historikoko irrati bakarra da.

Horretara bada, Bizkaiko euskararen ardatz nagusi eta ezinbestekoa izanik, tresna berezi-berezia dugu Bizkaiko gizartearen egituraketan. Interes publiko argia du, beraz, oro har, baina bereziki Bizkaiko Lurraldearen berezko hizkuntza darabilten bizkaitarrentzat.

Ageriko interes publiko horretaz gain, Bizkaia Irratiaren jarduera erabat egokitzen zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren hizkuntza politikaren lerro nagusietako bati, hots, Bizkaiko euskararen biziraupenerako tresna berezi eta bikaina izanik, estrategikotzat jotzen dela jardunbide horretan eta, horrenbestez, berariazko trataera zor zaiola duen eragin nabarmenarengatik. Interesgarritasun hori dela eta, Irratibide SAren proiektua ezin liteke konparatu deialdi batean xede bereko beste proiektu batzuekin, ez ezaugarrien ikuspegitik, ez eta haren helburuengatik ere, bakarra baita. Beraz, aurrekontuetan dirulaguntza izendun bezala agertzea proposatzen da.

Irratibide, S.A. es propietaria de Bizkaia Irratia, la única radio de Bizkaia, que ofrece toda la programación para el conjunto del territorio únicamente en euskera y, en cuanto a los dialectos vascos, tiene establecido por ley como modelo de lengua el euskera unificado o estándar de Bizkaia; por ello, Bizkaia Irratia ofrece toda su programación en vizcaíno en el Territorio Histórico de Bizkaia; además de ello, es la única radio del Territorio Histórico de Bizkaia que construye un puente desde el euskera de casa hacia el euskera unificado.

Así, siendo el eje principal e imprescindible del euskera de Bizkaia, constituye una herramienta muy especial en la estructura de la sociedad vizcaína. Por lo tanto, conlleva un indudable interés publico general, pero principalmente para los vizcaínos y vizcaínas que hacen uso de la lengua propia del Territorio de Bizkaia.

Además del evidente interés público, la actividad de Bizkaia Irratia se adecua completamente a una de las principales líneas de la política lingüística de la Diputación Foral de Bizkaia ya que, siendo una herramienta excelente y particular para la pervivencia del euskera de Bizkaia, se considera estratégica para esa función y, consecuentemente, merece un tratamiento específico por su notable influencia. Como consecuencia de su accesibilidad, el proyecto de Irratibide S.A. no puede compararse con otros proyectos con el mismo objetivo, ni desde el punto de vista de las características, ni por sus objetivos, puesto que es único. Por lo tanto, se propone se incluya con carácter de subvención nominativa.

Izenduaren zainkepetak- TXOSTENA
Consignaciones Nominativas - INFORME

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCION*	EGITARAUA / *PROGRAMA*	AZPIKON. *SUBCONCEP.*
04. Euskara, Kultura eta Kirola ***Euskera, Cultura y Deporte***	**06.** Euskara Euskera	**335.106:** Euskararen Sustapena *Promoción Euskara*	**443.00**

PROIEKTUA ***PROYECTO***	**2008/ 0134**: Editorial Iparraguirre S.A. *Editorial Iparraguirre S.A.*	**ZENBATEKOA** ***IMPORTE***	**42.000**

TXOSTENA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikuluak dio dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango direla: «a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak».

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzen duen 2012ko otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauaren artikulu bakarraren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako norbaiten izenean aurrez ikusitako dirulaguntzarik izanez gero, laguntzaren xede zehatza kreditatuko duen txosten osoa joango da harekin batera, zehaztuz zeintzuk diren hori emateko interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa kreditatzen dituzten arrazoiak, baita bilatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik egin ez izateko arrazoiak ere.

Editorial Iparraguirre SA enpresarentzat 2023ko ekitaldian «euskal kulturari buruzko edukiez eta bereziki Bizkaian euskararen sustapenarekin loturikoez hornituriko eranskin bat argitaratzeko» proiektua garatzeko aurrez ikusitako foru-dirulaguntza izendunari dagokionez, argi dago dirulaguntza entitate horri ematea ezin sar daitekeela dirulaguntzen ezein deialdi publikotan.

INFORME:

El artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: «a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia».

De acuerdo con el Artículo Único de la Norma Foral 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, cuando en el Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se contemple una subvención nominativa, éste acompañará un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y aquéllas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos.

En el caso de la subvención foral nominativa prevista para Editorial Iparraguirre S.A. para el desarrollo durante el ejercicio 2023 del proyecto de «edición de un suplemento con contenidos especialmente relacionados con el ámbito de la cultura en euskera y particularmente con la promoción de la lengua vasca en Bizkaia» es claro que la concesión de esta subvención a la citada asociación no puede ser encuadrada en ninguna convocatoria pública de subvenciones.

Alde batetik, proiektu honen bitartez Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren euskara sustatzeko jarduketa-planaren barruan funtsezko legez agertzen diren helburuak lortu nahi direlako, hala nola hauek: euskararen arnasgune eta funtzioak indartu eta hedatzea; euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea; eta euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

